



Ikas Berri

HEZIKETA EGUNERATUTA



Gero eta gertuago dugu apirilaren 28a. Egun horretan Segurtasunaren eta Lan Osasunaren Nazioarteko Eguna ospatuko da. Xede honekin, STTE-EILAS sindikatuak irakasleei eta ikasleei zuzendutako lau proposamen prestatu ditu. Helburua garbia da: sindikatuak osasunaren eta prebentzioaren alde egin nahi du eta honetaz guztiak ohartarazi nahi ditu irakasle eta ikasleak. Ikasgeletan ezezik, bizitzaren gainontzeko eremuetan ere.

Larrialdi batean nola jokatu



IRAKASLEEN FITXA

AO. Lehendabiziko ebaluaketa

-Larrialdi-alarma nola antzematen den azaldu behar duzue.
-Larrialdi-alarma orru egiten duenean ikasleek zer egin behar dutenarekin zerrondatxo bat prestatu behar da. Larrialdi-alarma entzuten ez den tokirik ba al dago eskolan?
-Eskolako guztiok elkartzen garen topagunea non dago?
-Zer da simulazio bat? Noiz egiten da? Zertarako egiten da?
-Larrialdi-ikurrak arbelean marraztu behar dira eta ikastolan barrena non dauden jarritako gogorazi behar zaie ikasleei. Horrela, hustuketa gertatzen denean, zein bide jarraitu behar den gogoratzeke.
-Ondorioak.

A1. Benetazkoa izan daitekeen kasu bat

-Fitxan agertzen den testua ozenki irakurri behar da marrazkiari kasu egitearekin batera.

-Bi zatitan erdibitu behar da arbela: zutabe batea nola ondo jokatu azalduko da eta bestean aldiz, nola ez den jokatu behar.
- Ondorioak.

A3. Hustuketa-bidea

Irakasleak ikastolaren planoak lortu behar ditu. Hustuketa-bidea zein den agertu behar da plano hauetan. Ikasgela bakoitzaren atean hustuketa-bide honen berri ematen duen planoak ikusgai egon behar du.
-Hustuketa egitasmoa irakurri behar da.
-Ixilik eta ordenatuta hustuketa-bidea egin. Bide guztian barrena suteetarako hauts itzaltzaileak eta tutu malguak non dauden kokatuta gogotan hartu. Azkenik, topagunea izango den tokian elkartuko dira guztiak.
-Ikasgelara itzultzean, zein zailtasun aurkitu dituzten komentatuko da.
-Argibiderik gabeko planoak eman behar zaizkie ikasleei. Horrela, plano horretan hustuketa-bidea marraztu beharko dute.

Gainera, orduaren arabera ikasgela batean edo bestean egon daitekeenez, toki batetik edo bestetik jarraituko beharreko hustuketa-bidea marraztu beharko dute. Azkenean, ikasgela bakoitzak hustuketa-bidea marraztuta agertzen den plano bat egingo du, ikasgelaren paretetako batean zintzilikatzeke.

A3. Ebaluaketa

-Zentzuzko denbora iragan denean, simulazio bat burutu beharko litzateke, ikasleek eta irakasleek honen berri izan gabe. Topagunean denak elkartzeraino iragaten den denbora neurtu beharko litzateke.
-Behin ikasgelara itzuli direnean, eskola hustutzean ikasleek beste kideengan ikusi dituzten jokabide zuzenak eta akatsak arbelan idatziko dituzte. Era berean, bakoitzak nola jokatu duen azalduko du eta zein zailtasun topatu dituen azpimarratuko du.
-Guztiaren ondorioak atera.

AHOLKUAK

-Gida honetan azaltzen diren ekimen hauek edozein ordutan burutu daitezke. Tutoretza klaserako oso egokiak dira.

-A1 eta A3 moduluak Hizkuntzako klasean landu daitezke. Programaren testuak honen baliagarri gerta daitezke.

-A2 modulua Marrazketako klasean burutzeko izugarri egokia da.

-Marrazketako klasean errotulazioak marraztu daitezke. Hustuketa-bidean jarri beharreko ohar eta ikurrak ere marrazketako klasean egin ahal dira. Halaber, planoak ikastordu honetan molda daitezke.

-Materiale osagarria: programa interesgarri hau klasean garatu nahi izanez gero, sindikatu honen helbide elektronikora jo dezakezue (stee-eilas.org) edota 948 270048 telefonora dei dezakezue.

IKASLEEN FITXA

SIMULAZIOA ESKOLAN



Amaia oso gustora dago ikastolan. Batzutan, ikastolan bertan sortu dela uste du. Ez da harriztekoa. Hiru urte zituenean etorri zen lehendabiziko aldiz eta orduztik bertan dago, ikasten, jo eta su. Egia esan, ikastea ez zaio gehiegi gustatzen. Matematikak, adibidez, gorroto ditu. Aldiz, teknologia klasea izugarri gustatzen zaio. Gustora dago kable, zirkuitu, plano eta abarrez inguratuta. Gainera, Amaiak lagun asko egin ditu ikastolan.

Matematikako irakaslea iristear dago. Olentzerok ekarritako jostailu zoragarri baten berri ematen dio Mariari Sergiori. Oso polita omen da eta egun batean etxera gonbidatuko duela esan dio, elkarrekin jolasteko. Antza, Olentzerok Mariaren anaiari ekarritako oparia ez omen da hain polita, telebistan oso jostailu zoragarria zirudien arren.

Berta matematikako irakaslea iritsi denean Maria ixildu da. Tupustean, alarma-soinuak orru egin du. Bozgorailutik pertsona guztiek eraikinetik alde egin behar dutela entzun da. Mariak eta Mariaren lagunak elkarri begiratu diote. Andereñoak lasaitu daitezzen eskatu die. Ziurrenik, eskolan arazoren bat egongo dela esan die eta, hortaz, ahalik eta azkarrenen ikasgelatik alde egin behar dutela azaldu die, hori bai, ordenatauta eta nahasmendu gehiegi-rik gabe. Filaz filaz zutitzeko agindu die. Irakasleak klaseko atea zabaldu du, hustuketa ordenatuta egiten ari diren ikusteko.

Amaiak eta Sergiok elkarrekin alde egin dute. Ikastola nola hustu ikasi zutenean, dagoeneko guztia ahaztuta duela esan dio Sergiok Amaiari. Amaiak ez arduratzeko esan dio Sergiori, berak simulazio asko egin dituela eta ikastola nola hustu behar den gogoratzen duela. Horrela, gidarenak egiten dituen irakasleari jarrituz gero, kanpoan elkarrekin behar diren elkargunera iritsiko direla hitza eman dio.

Irakasleak korri ez egiteko esan die behin eta berriz. Hustuketa-bidea jarraitu behar dute. Eskailera batzuk jeitsi dituztenean, Sergiok aurki gosaltzeko tenorea izango dela gogoratu du. Horrela, ogitarteako bila berriz ere klasera itzuliko dela esan dio Amaiari. Amaiak, aldiz, besotik heldu dio eta ezetz esan dio. Oso larria da berriz ere klasera itzultzea. Izan ere,

dagoeneko sua edota kea egon daiteke bertan.


Horrela, poliki poliki, ordenatuta, lehendabiziko solairuan daude eta aurki atarian egongo dira. Sergiok makuluak daramatzen mutiko bat ikusi du. Mutiko hau kostata ibiltzen da oinez. Dena dela, beste lagun batek besotik heldu eta oinez ibiltzen laguntzen dio.

Azkenean, atarira iritsi dira.

Topagunea jolastokian dago.

en iturria da. Izan ere, iturri honen oinetan berdez margotuta dagoen zirkulu bat dago eta zirkulu honetan beste zirkulu txuri txikiago bat dago. Hauxe da topagunearen ikurra, Amaiak Sergiori esan dionez. Hurren, irakasleak bere ondoan dauden ikasleak zenbatu ditu. Ez da inor falta. Guztia oso ondo egin dutela esan die. Dena dela, ez zegoela inolako larrialdirik ohartarazi die. Alegia, soilik simulazio bat zela.

Alabaina, nolabaiteko urduritasuna barreiatu da jolastokian. 2.Akoak ez dira inon ikusten. Non daude? Zer geratu zaie? Azkenean, soinketako irakaslearen atzetik laisterka datoz, lipar batean urduri. Gimnasioan zeuden eta bertan ez omen da alarma-soinurik entzun. Bozgorailuetatik berriz ere klasera itzultzeko agindu zaie irakasle eta ikasle guztiei. Amaiak barre handi bat marraztu du eta zera esan dio Sergiori: izugarri gustatzen zaizkit simulazioak. Gaur Matematikak galdu ditugu.



Hurrengo zenbakietan: Martxoak 23: Zein bizkar-zorro daramazun, halakoa zara. (Ergonomia). Apirilak 6: Produktu kimikoak etxean eta eskolan. (Higienea). Apirilak 20: Lehen sorospenak, edozeini tokatu ahal zaigu.